

## Euskal Herriko zazpi sagardo, munduko 100 onenen artean



Liburuaren aurkezpeneko irudia, egitea erdian delarik.

### Susanna Forbes kazetari eta idazle britaniarrak egin du aukeraketa bere 'The Cider Insider' libururako

Sábado, 6 octubre 2018, 12:06



Euskal Herrian ekoiztutako zazpi sagardo aukeratu ditu Susanna Forbes kazetari eta idazle britaniarrak bere 'The Cider Insider. The essential guide to 100 craft ciders to drink now' libururako. Liburua, Sagardoaren Lurraldeak antolatutako Sagardoaren Kultura eta Turismoaren I. Topaketaren testuinguruan aurkeztu zen Astigarragan, eta aurkezpenean liburuan aipatzen diren sagardo batzuk dastatzeko aukera izan zen, Sagardoaren Lurraldea elkarteak jakinarazi duenez.

Susanna Forbes ardoa, garagardoa eta sagardoan berezituriko kazetaria eta idazlea da. Jatorriz, Ingalaterra osoan sagardo usadio handiena duen Herefordshire eskualdekoa da eta 'Little Pomona' izeneko sagardotegia martxan jarri berri du. Orain, **Ingalaterra, Gales,**

**Bretainia, Normandia, Alemania, Italia, Australia, Lanada, Zeelanda Berria, Hegoafrika, Asturias, Galizia eta Euskal Herriko 100 sagardo artisau** gomendatzen dituen liburua argitaratu berri du.

Liburuan nabarmentzen diren sagardoen artean **Euskal Herriko zazpi** agertzen dira: Zelaiako Gorenak Sagardoa 2017 (Hernani), Zapiaingo Euskal Sagardoa Premium 2017 (Astigarraga), Isastegiko Euskal Sagardoa 2017 (Tolosa), Gartziategiko Gorenak Sagardoa 2017 (Astigarraga), Gaztañagako Gorenak Sagardoa 2017 (Andoain), Bereziartuako Euskal Sagardoa 2017 (Astigarraga) eta Bordattoko Txalaparta 2016 (Jatsu-Garazi, Nafarroa Beherea).

Sei urtetan zehar gauzatu duen ikerketan, Forbes-ek sagardoa ekoizten duten mundu osoko lurralde nagusiak zeharkatu ditu. 2018ko martxoan bere ikerketak Euskal Herrira ekarri zuen eta bertan, Sagardoaren Lurraldea elkarteko nazioarteko harremanen arduradun Haritz Rodriguez kazetariarekin batera, bertako sagardotegi adierazgarrietakoak ezagutu zituen.

Ordurako sagardoaren inguruko erreferentziak bazituen arren, Forbes-ek sagardotegi batzuk bisitatu eta sagardoak dastatzeko aukera izan zuen, euskal sagardoaren kulturaren barneratuz eta txotx-aren errituaz gozatuz. Bere bisitaren emaitza, aipatutako Euskal Herriko zazpi sagardo nabarmentzeaz gain, Euskal Herriko sagardoaren kultura, ezaugarri eta Astigarragan dagoen Sagardoetxea Sagardoaren Museoaren inguruan egiten duen erreferentzia zabala da.

### **Nazioarteko sarea**

'The Cider Insider' liburua Astigarragako Iretza sagardotegian aurkeztu zen, irailaren 28tik 30era bitartean ospatutako Sagardoaren Kultura eta Turismoaren I. Topaketaren baitan. Ingalaterra, Gales, Alemania, Asturias, Galizia, Bretainia, Austria, Irlanda, Norvegia eta Euskal Herriko ordezkariak bildu ziren bertan. Zorione Etxezarraga Astigarragako alkatea, Harkaitz Millan Basquetor turismoaren euskal agentziako zuzendaria eta Maite Cruzado Gipuzkoako Aldundiko Turismo zuzendaria ere aurkezpen ekitaldian izan ziren.

Sagardoaren kultura eta turismoa munduan sustatzeko nazioarteko sarea martxan jartzea adostu zuten topaketara gerturatutako ordezkariak. Hala, datozen hiletan, marka amankomuna eta sarean parte hartzen duten norakoen informazioa bilduko duen webgunea martxan jarriko dira, eta proiektua indartzen lagunduko duten europar finantziatorako aukerak aztertuko dira.

Hernaniko Orona Fundazioan gauzatutako lan bilerez gain, nazioarteko ordezkariak Iretza sagardotegian ospatu zen afari tematikoaz gozatzeko aukera izan zuten, bertako produktuak eta

nazioarteko sagardoak dastatuz; Euskal Sagardoaren «Egin Zotz!» kanpainen parte hartu zuten Astigarragako tabernetan; Donostia bisitatu zuten bertako pintxoak Euskal Sagardoaz lagunduta dastatzeko; Zelaia eta Alorrenea sagardotegiak bisitatu zituzten; eta Sagardoetxea eta Albaola museoetako bisitaldietan sagardoak XVI. mendean Ternuara egindako itsas bidaietan izan zuen garrantzia ezagutu zuten. Topaketaren amaiera gisa, irailaren 30ean Astigarragan ospatu zen Sagar Uzta jaietan izan ziren.

---

TEMAS Euskera



### La mejor selección de noticias en tu mail

Recibe las principales noticias, análisis e historias apuntándote a nuestras newsletters

**Apúntate**

---

---

## Lo + leído

El Diario Vasco

Sociedad

[Top](#)

[50](#)

- 1** Un muerto y cinco heridos, dos de ellos graves, en un accidente múltiple en la N-121-A en Santesteban
- 2** Las ocho ayudas a la vivienda, de compra o alquiler, existentes en Euskadi
- 3** Médicos alertan del peligro de fumigar con avionetas los pinares de Euskadi
- 4** Euskadi afronta el reto de relevar a la mitad de los profesores, que se jubilan en una década
- 5** La Policía descubre que la mitad de un pueblo de Ciudad Real veía fútbol pirateado



 **Comentarios** 

---


**Patrocinada**

---

**Noticias relacionadas**


---

**Euskaltzaindiak jarrera aldaketa eskatu dio Espainiako estatuari**




---


**Aurreneko aldiz, euskara plana izango du Osatekek**



---

**Euskara, berdintasuna, desgaitasuna eta migrazioak hizpide EHUren Irrati Maratoian**






▣ Oso giro desberdinak



▣ Bertsolaritza, zinema eta ohiko osagaiak



▣ El astromóvil, del Sáhara a futuras misiones a Marte



▣ Carrera solidaria en el Caribe francés



Vídeos



▣ 'Soinujolearen semea'



▣ La Policía detiene a un fugitivo buscado por las autoridades de Montenegro



**▶ Campaña #NombresConHistoria, botellas de agua que rompen fronteras**

---



**▶ La nave Soyuz MS-11 se acopla con éxito a la Estación Espacial Internacional**



## EL DIARIO VASCO

© Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.

Domicilio social en Camino de Portuetxe, 2 San Sebastián 20018



vocento ✓

[Contactar](#) | [Aviso legal](#) | [Política de privacidad](#) | [Publicidad](#) | [Mapa web](#) | [Política de cookies](#)